

Goizean goiz leihopetik sartzen diren egunsentiaren argiek esnatu naute gaurkoan ere. “Egun bat gutxiago” pentsatu dut nirekiko. Edo egun bat gehiago, agian? Bigarren aukera hobea dela pentsatu baina ezin sentiturik. Ur edalontzia erdi hutsik edo erdi beterik ikustearen aukeraren aurrean aurkitzen garenean bezala. Garai batean bete-betea ikusten nuela ohartzeak tristura sortzen du nigan, orain egunetik egunera hutsago ikusten baitut. Egunak luze jotzen dute hemen, bakardadean murgildurik, bizitzaren zentzua nonbait topatu nahirik. Nork esango zidan iraganean izandako pertsona alai, bihurri eta gogotsu hura bidean galduko zenik?

Ohetik jaiki eta gosaltzera abiatu naiz. Kafesne beroa, azukrerik gabeko lau opiltxo, laranja zukua eta ezagutu berri ditudan hiru pertsona nire mahai inguruko aulkietan niri so. Bata emakumezkoa eta beste biak gizonezkoak. Emakumeak burua beste nonbait duela dirudi, mundu magiko batetan murgilduta egongo balitz bezala. Gizonezkoak nahiko zahartuta daude, baina jatorrak dirudite. Hamar minutu daramatzagu isiltasunean, inork ez du tutik ere esaten, zerbait esan beharko dut momentu deseroso hau hausteko. Edo agian ez, jada ez zait axola besteek zer pentsatzen duten, hitz egin dezatela beraiek nahi badute. Halako batean, nire eskuinean dagoen gizonezkoak ahoa zabaltzen du:

- Ni Manuel nauk, zein duk hire izena? – galdetzen du.
- Ni Joxe Mari. – erantzuten diot.
- Berria haiz hemen, ezta?
- Hala uste diat. Eta zuek? – galdetzen diot, nahiz eta ez zaidan gehiegi axola erantzuna.
- Gu aspaldikoak gaituk moteil! Urte batzuk badituk hemen bueltaka gabiltzala! – dio irribarretsu.

Hizketaldia moztuz, neskatxa bat etorri zaigu mahaia jaso eta komunera joan behar dugula esanez. “Komunera joatera derrigortu egin behar al naute ba?” pentsatu dut nigan. Txintik ere esan gabe komunera abiatu naiz, baina non ote dago? Goizean izan ez naiz ba bertan! Burua

hasi zait bereak egiten oraingoan ere. Korridoretik bueltaka nabilela, beste neskatxa bat etorri zait laguntzera eta behatzarekin seinalatuz non dagoen azaldu dit. "Han aurrean Joxe Mari".

Komunetik atera orduko, kanporantz abiatu naiz eguzki apur bat hartzeko asmoz, baina zoritxarrekoa ni, atzetik esku hotz batek eutsi nau hau esanez:

- Joxe Mari, badakizu ezin duzula kanpora joan, barruan egon behar duzu orain ariketak egiteko zure kideekin.

Ariketak? Ze ariketa klase? Nolatan ezingo naiz ba haizea hartzera atera horretarako gogotsu banago? Ez dut ezer ulertzen. Baina berriro ere ezertxo ere esan gabe kasu egitea erabakitzen dut, txakur otzan batek bere jabearen agindua betetzen duenean bezala. Bai, maisu. Amen.

Hamar minutu pasa ostean, mahai baten inguruan aurkitzen naiz ezagutzen ez ditudan hainbat pertsonaz inguratuta. Aurrean paper bat, ezkerrean hitz batzuk eta eskuinean irudi desberdinak islatzen dituena. Elefantea, ospitalea, arrandegia, mailua, mahaia. Hitz bakoitza bestaldeko irudi batekin gezi batez lotu behar. Umeak garelakoan ote daude goitik behera zuriz jantzitako pertsona arraro hauek?

Ordu bat pasa ostean hemen aurkitzen naiz, telebistaren aurrean besaulki batean eserita. Arratsaldetan botatzen dituzten dokumental horietako bati begira entreteniturik. Loak hartu nau.

Arratsaren erdialdean zuriz jantzitako neskatxa horietako bat etorri zait bisita bat daukadala esanez, eta egongela batetara zuzendu nau. Bertan lau pertsona aurkitzen dira zutik, nire zain egongo balira bezala. Ezagutzen nautela dirudi, nire izena ere badakite. Gizonezko batek 40 urte inguru ditu, ile beltzarana, begi marroiak eta hanka luze-luzeak. Emakumezkoa, berriz, nahiko txikia da altueraz, oso erakargarria da, eta begi urdinak eta handiak ditu. Tristura transmititzen dit bere begiekin, zerbait gertatzen ote zaion galdetzen diot neure buruari. Pixka bat beherago begiratu eta bi ume polit bistaratzen ditut. Bost edo sei urte inguru edukiko

dituzte. Biak irribarre bizi eta eder batekin aurpegian. Zer gutxiago espero adin horretako umeengan? Gelara sartu orduko emakumezkoak besarkada handi eta indartsu bat ematen dit, zer moduz aurkitzen naizen galdetuz. Ez dakit nondik nora ezagutzen ote nauten, baina adeitsua izan beharko.

- Ondo, hementxe. Zeuek zer moduz zaudete ba? – diot.
- Oso ondo, zu ikusteko gogotsu zeuden umeak! – dio gizionezkoak.

Ez dut ezer ulertzen, baina pare bat ordu igaro dira beraiekin hizketan hasi naizenetik. Egia esan oso gustura sentiarazi naute, jende jatorra benetan! Ea laster itzultzen diren.

Konturatu orduko eguzkia sartu eta ilargiak atera du bere distira azalera, milioika izarrez inguratutako ilargi liluragarriak. Orduak eta orduak pasako nituzke berari begira, ametsetan. Eta halaxe egiten dut loak hartu arte. Egun bat gutxiago.

Hurrengo goizean, ohetik jaiki eta dutxa bero bat hartu ostean, sukalderantz abiatzen naiz gosaria prestatzera. Arraioa! Mahai gainean prest daukat jadanik! Jendea mahaian zain daukadala dirudi gainera. Gizionezko batek honakoa dio:

- Ni Manuel nauk, zein duk hire izena?
- Egun on. Ni Joxe Mari nauk. – erantzuten diot.
- Berria haiz hemen, ezta? Gu urte batzuk badituk hemen bueltaka gabiltzala!

Arraroa egiten zait egoera, lehenago berdina bizi izan banu bezala. Ez dakit nolatan baina gizon horren izena banekien. Atzo ere berdina esan zidalakoan nago, baina ez nago ziur. Guztiak oso korapilatsua dirudi. Nik ere urteak ote daramatzat ba etxe honetan? Egia esan nire andregai Karmen aspaldi ikusi ez dudalakoan nago. Erosketak egitera atera ote da? Hauxe nahaspila dudana buruan!

Bat-batean emakumezko batekin aurkitzen naiz gela txiki eta hotz batean. Psikologoa dela azaltzen dit, ea zer moduz aurkitzen naizen, gustura al nagoen nire kideekin, gustuko al dudan zahar-etxea. Zahar-etxea? Bertan bizi ote naiz? Eta noiztik? Non dago Karmen? Nirekin bizi da? Ikaragarritzko izua sartzen zait momentu batean, ez dut ezer ulertzen, ez dut ezer gogoratzen.

- Zer moduz egon zinen atzo zure alaba eta familiarekin? – galdetzen dit.

Nire alaba? Atzo nirekin hain tarte ederra pasa zuten horiek nire familia zirela esaten ari al zen emakume hura? Zer pentsatu ote zuen nire alabak ez nuela errekonozitu ikustean? Pare bat minutu pasa ostean gogoratzen dut zer gertatzen zaidan. Alzheimer puta! Duela bi urte etorri nintzen etxe honetara, Karmen minbiziak eman eta denbora gutxira. Ikaragarritzko tristura sumatzen dut ariman, bularraren barru-barruan, inork kendu ezin duen min jasanezin horietakoa. Hainbeste urte lanean eta familiari behar duen guztia eman nahian, eta konturatzerako hemen nago, zahar-etxe batean abandonaturik, bakar-bakarrik, aurreko egunean zer egin dudan eta nor naizen gogoratu ezinik. Kontsolatzen nauen bakarra, hurrengo egunean ez naizela ezertaz gogoratuko da. Baina nire alaba bisita bat egitera etortzen denean ez al dut ezagutuko? Noizbait ezagutu ote dut? Milaka galdera, denak batera, burua lehertu behar zaidala sentitzen dut. Banoa logelara lotara.

Ilargiari begira denboraldi bat pasa ostean, ohean sartzen naiz, goxo-goxo. Ezin dut burutik kendu nire egoera. Bihar esnatu eta zerbait gogoratuko ote dudan pentsatzeari ezin diot utzi. Atzera bueltatzea gustatuko litzaidake. Guztiok etxean, osasuntsu, elkar maitatzen, inongo memoria arazorik gabe. Hain gustuko genituen gaztaina beroak jaten. Karmen, gure alaba Miren, bere gizona eta umeak. Horiek bai momentu ahaztezinak! Inoiz itzuliko ez direnak.

Halako batean, buruak bueltak emateari utzi eta deskantsatzeko momentua dela erabakitzen du. Pentsamendu txar guztiak alde batera utzi eta lotarako ordua.

Egun bat gutxiago.